



ERANET sareak Europako gobernuen indar-gune gisa aitortu izan dira, ikerketa-programa nazional eta erregionalak kudeatzeko eta batera finantzatzeko.

Bultzatzen dituzten deialdi transnazionalen bidez, **enpresei eta teknologia- eta ikerketa-zentro nazional eta erregionalei aukera ematen zaie I+b-ko proiektuak aurkezteko**, beste herrialde batzuekin batera, ERANET bakoitzean definitutako beharizan estrategikoak estaltzeko.

ERANET COFUND HORIZONTE 2020an

ERANETei esker lortu da **koordinazio-ekintzen sare transnazional** sendoak eratzea: horien bidez azken 10 urteotan handitu egin da Europako programen finantzatzaileen arteko lankidetzeta ikerketa eta berrikuntzako (I+b) arlo estrategikoetan.

Europa Horizonte 2020 strategiaren baitan, ERANET Cofund berriak bateratu egin ditu lehengo ERANET eta ERANET-plus, 6. eta 7. esparru-programakoak, **joko-arauak soilduz eta partzuergoei askatasun handiagoa emanez:**

- **Deialdi** transnazionalak **derrigor ko-finantzatu beharra** (gutxienez, bat).
- Partzuergoak askatasuna izatea deialdien aurrekontuan, kudeaketan eta inplementazioan.
- Partzuergoak malgutasuna izatea **jarduera gehigarrien** mota eta iraupena erabakitzeke.
- I+b-ko **beste erakunde-programa batzuk** eta **espezietan ikertzeko** ekarpena erabiltzeko aukera.
- **Kostuetarako diru-laguntza soilteza:** kostu unitarioak, *networking*atik eta jarduera gehigarriatik.
Justifikazioa sinpletzea Batzordearen aurrean: 2 txosten tekniko besterik ez eta 1 txosten ekonomiko bakarra.
- **ERANET Cofunderako neurri egindako ereduak:** diru-laguntzaren ebazpena, eskaera-proposamena, auto-ebaluazioko formularioa, etab.

ZERTARAKO BALIO DUTE?

ERANET Cofund **gobernuen tresna** gisa diseinatu da, **partenariatu publikoak babesteko, kooperazio-laguntzak prestatzeko eta sortzeko lanetan**, eta I+b-ko deialdi bateratuak diseinatzeko, koordinatzeko eta inplementatzeko lanetan, Horizonte 2020rako balio erantsi eta garrantzi handiko esparruetan.

Azken helburua da **estatu kideetan eta atxikitako estatuetan garatutako ikerketa-jarduera eta -politiken koordinazioa erraztea**, ikerketa-programa nazional eta erregionalen bidez.

ERANETen emaitzaren oinarria da estatu kideen artean finantzazioa partekatzea, I+b-ko agenda estrategikoei heltzeko

Estatu kideek eraneten inguruan dituzten finantza-konpromisoak eskudirutan (“in cash”) edo espezetan (“in-kind”) ordain daitezke, eraneten ikuspegia gobernuen ikerketa-erakundeen finantzaziorantz hein handiagoan bideratzeko.

NORK HAR DEZAKE PARTE?

ERANET Cofunden partenariatuan parte hartzen dutenen hautagarritasun-betekizunak 7. EPko ERANETenen antzekoak dira.

- **Ikerketak finantzatu** behar dituzte: I+b-ko programa publikoak kudeatzen dituzten edo horrelakoak dituzten erakunde juridikoak:

1. Programen **jabeak**: ministerioak, herrialdeetako eta administrazio erregionalak, I+b programa nazionalak eta erregionalak **definitzeaz, finantzatzeaz eta kudeatzeaz** arduratzen direnak.
 2. Programen **kudeatzaileak**: agentziak edo beste erakunde nazional eta erregional batzuk, **ikerketaprogramak kudeatzen dituztenak jabeen zaintzapean**.
- **Bazkideen gutxieneko kopurua**: 3 estatu kidetako edo atxikitako 3 estatuko 3 erakunde, deialdi bateratu transnazionalak inplementatzeko gai direnak.
 - **Edozein hirugarren herrialderi irekita**, betiere gainerako kideek betetzen dituzten betekizunak betetzen baditu.
 - **Beste erakunde batzuei irekita**, betiere gainerako kideek betetzen dituzten betekizunak betetzen baditu. Kasu horretan, adierazi egin behar da nor diren programa nazional edo erregionalen jabeak edo kudeatzaileak.
 - **Beste erakunde ez publiko batzuek finantzatutako programei irekita** (nazioarteko programak, fundazioenak, etab.), betiere gutxieneko betekizunak betetzen badira eta parte-hartzea justifikatzen bada, bere izaera dela eta.

ERANET Cofundetan parte hartzen duten erakundeek ikerketaren finantzatzaile eta I+b-ren esparruko programa nazional/erregionalen jabe edo kudeatzaile izan behar dute

DEIALDI TRANSNAZIONALEN MOTAK

ERANET Cofundak inplementatu behar dituzten deialdi bateratuak hiru motatakoak dira: lehenengo motakoak aurreko esparru-programetako ERANETen antzekoak dira, baina beste bi motara ere zabaldu dira, zenbait baldintza ezarrita:

A. Deialdi bateratua inplementatzea (estatu kideen ekarpena, "eskudirutan"):

- ✓ **Kideak**: finantzazio-organismo nazional eta erregionalak.

- ✓ **Jarduerak**: **deialdia prestatzea, inplementatzea eta jarraipena egitea.**
- ✓ **Hauta daitezkeen kostuak**: proiektu transnazionalak egiten dituzten hirugarren zatien finantzazioa babestea.

B. Deialdi bateratua inplementatzea (estatu kideen ekarpena, "eskudirutan") eta jarduera gehigarriak:

- ✓ **Kideak**: A modalitateko berberak.
- ✓ **Jarduerak**: A modalitateko berberak gehi jarduera gehigarriak; hala nola, **I+b-ko programen koordinazioarekin lotuta dauden deialdi gehigarriak edo beste jarduera bateratu batzuk.**
- ✓ **Hauta daitezkeen kostuak**: A modalitateko berberak, gehi **koordinazio-kostu unitarioen** finantzazioa, **onuradun eta urte bakoitzeko-**

C. Deialdi bateratua inplementatzea (estatu kideen ekarpena, "eskudirutan"), aparteko kasuetan:

- ✓ **Kideak**: **ikerketaren esparruko gobernu-erakundeak**, ikerketa-arloak eta azpian dauden programa nazional/erregionalak justifikatzen dutenean
- ✓ **Jarduerak**: A modalitateko berberak.
- ✓ **Hauta daitezkeen kostuak**: **deialdia antolatzen duten erakundeek eurek exekutatzeko dituzte proiektuak, erakunde-finantzazioaren** ekarpenak oinarri hartuta, "eskudirutan" egindakoak. Kasu horietan, diruz lagundu egiten dira Horizonte 2020ren arauen arabera proiektuak exekutatzetik eratorritako zuzeneko kostuak.



DEIALDI TRANSNAZIONALEAN SINE QUA NON ARAUAK

ERANET Cofundetako kideek finantzatu egin behar dituzte inplementatutako deialdi bateratuetan aurkezten diren proiektuak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- **Deialdi** bateratua **ERANET Cofunden webgunean argitaratu** behar da, **eta nazioan/herrialdean promozionatu behar da**, ohiko difusio-bideen bidez.
- **Deialdi** bateratua **60 egunez** egongo da **irekita**, gutxienez, eta argitalpena baino 30 egun lehenengo, Batzordeari horren edukiaren berri eman behar zaio.
 - **Deialdiari dagokionez, proposamenak aurkezteko** prozedurak **bi fase** izango ditu:
 - 1: partenariatuak nazioan/herrialdean eta/edo transnasionalki egindako ebaluazioa.
 - 2: gutxienez 3 aditu independentek egindako ebaluazioa, Erkidegoko 3 ebaluazio-irizpideri jarraikiz (bikaintasuna, eragina eta kalitatea, eta aplikagarritasunaren efizientzia).
- **Proiektu** transnasionaletan **gutxienez 2 erakunde** independentek parte hartu behar dute, 2 herrialde kidetakoak edo atxikitako 2 herrialdekoak izan.
- Proiektuak ordenatzeko, ebaluazioaren emaitzak erabiltzen dira, eta ordena horren arabera hautatzen dira.
- ERANET Cofundek proiektu bakoitzaren datuak aurkeztu behar dizkio Batzordeari (parte-hartzaileak, proposamenaren laburpena eta emaitzen ikuspegi orokorra), **difusio publikoa** emateko.

ZEIN KOSTU FINANTZATZEN ZAIO ERANET COfUNDI?**Koordinazio-jarduerak, deialdi bateratua garatzeko (A-B modalitatea)**

Horizonte 2020ren hatsarreak, **hauta daitezkeen kostu osoetan ehuneko bakarra aplikatzearenak, ez du ahalbidetzen ERANETen koordinazioaren kostuak osorik finantzatzea, aurreko esparru-programek ez bezala.**

Partzuergoak Erkidearen ekarpen zati bat erabil dezake deialdia koordinatzeko, betiere gastuak hauta ezin badaitezke eta proiektu transnasionaletara bideratutako **bazkideen finantzazioaren** eta jarduera gehigarrien kostu bateratuen % **33 gainditzin ez badute.**

Praktikan, horrek dakar Erkidearen ekarpenaren zati bat erabiltzen bada deialdia egiteko, ordezkatu egin beharko dela proiektu transnasionalak finantzatzeko ekarpen nazional/erregional gehigarriekin.

H2020k deialdiaren koordinazio-jarduerak diruz laguntzen ditu, hauta daitezkeen zuzeneko kostuen ehuneko bakarra aplikatuta

Koordinazio-ekintzak, jarduera gehigarriak egiteko (B modalitatea)

Soiltze gisa, Horizonte 2020an **diruz laguntzen dira jarduera gehigarriak koordinatzeak eragindako zuzeneko kostuak; zehazki, 29.000 €/onuradun/urte-ko zenbateko finkoa ematen da.** Zenbateko hori kalkulatzeko, aintzat hartu da 6. EPko 71 ERANETen koordinazio-gastuen % 30 zein den.

Horizonte 2020ko gainerako proiektuetan bezala, % 25 ezartzen da zeharkako kostuetarako. Horren ondorioz, **jarduera gehigarriak koordinatzeagatik zuzeneko eta zeharkako kostuen gehienezko diru-itzulketak, onuradun eta urte bakoitzeko, 11.962,50 €-koa izango da (gehienez ere 5 urte).**

ERANET Cofunden modalitate horretan baldintza bat bete behar da: **koordinazio-kostuetarako Erkidearen ekarpenak ezin du gaindituko ekarpen osoaren % 20.**

Halaber, **zati batean edo osorik eurentzat proiektu transnasionalak egiten dituzten onuradunek ezin dituzte** jarduera gehigarrietatik eratorritako **koordinazio-kostuak aitortu.**

Partzuergoetarako ondorioa da finantzazio-modalitate berriak aurkitu behar dituztela.

Kostu unitarioak ordaintzeko, aintzat hartuko dira ERANET Cofundeko bazkideek jarduera gehigarrietan parte hartu duten urteak, partzuergoek malgutasuna izanik zein bazkidek zein urtetan erabiltzen dituen erabakitze

HORIZONTE 2020 DEIALDIAK – ERANET COFUND ELIKAGAIEN SEGURTASUNEAN, NEKAZARITZAN, ARRANTZAN ETA BIEKONOMIAN (2. GIZARTE ERRONKA)

2014-2015 lan-programan 20 ERANET Cofund eta CSA (Laguntza- eta koordinazio-ekintza) baino gehiago aurreikusten dira. **ERANET Cofundetarako aurrekontua 83 milioi euro ingurukoa da 2014rako, eta 163 milioi eurotik gorakoa 2015erako.**

2. gizarte-erronkan irekitako deialdiak ondoko koadroan adierazitakoak dira:

	2014	2015	Title of the topic
Pillar "Societal challenges"			
Food security, sustainable agriculture and forestry, marine and maritime and inland water research and the bioeconomy	ERA-NET, 5M€ Call closure: 11 June 2015	ERA-NET, 15M€ Call closure: 26 June 2014	ISIB-12-2014/2015: Public-Public Partnerships in the bioeconomy (multiple topics) A. (2014) Sustainable and resilient agriculture for food and non-food systems Informazio gehiago B. (2015) Rural development C. (2015) Monitoring and mitigation of agricultural and forestry greenhouse gases (GHG) Informazio gehiago D. (2015) Sustainable crop production E. (2015) Sustainable livestock production F. (2015) Biomarkers for nutrition and health
	CSA, 0,5 M€ Call closure: 26 June 2014		ISIB-10-2014: Networking of Bioeconomy relevant ERA-NETs Informazio gehiago
	CSA, 2 M€ Call closure: 26 June 2014		ISIB-11-2014: Coordination action in support of the implementation by participating States of a Joint Programming Initiative on Agriculture, Food Security and Climate Change Informazio gehiago
		CSA, 2 M€ Call closure: 11 June 2015	BG-16-2015: Coordination action in support of the implementation of the Joint Programming Initiative on 'Healthy and Productive Seas and Oceans' Informazio gehiago

ERANET COFUND BAT AURKEZTEKO BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

ERANET Cofundeko proposamen bat aurkezteko, beharrezkoa da dokumentazio hau aintzat hartzea:

- **2014/2015 lan-programaren eranskin orokorrak:** ERANET Cofundaren deskribapena eta hautagarritasun-baldintza zehatzak eta ebaluazio-irizpideak.
- **Diru-laguntzaren ebazpena:** ERANET Cofunderako diseinatutako eredia. Barnean daude formulario ekonomikoetarako eranskin espezifikoak, funtsen erabilgarritasunerako konpromiso-formularioa eta lehenagoko aurre-finantzazioaren erabileraren aitopenen eredia.
- **Proposamenak prestatzea:** ERA-NET Cofund-eko proposamenak aurkezteko bete beharreko eskaera-formularioak.
- **Autoebaluaziorako formularioa:** ERANET Cofundeko proposamenen egileei ebaluazio-irizpideei eta betekizun nagusiei buruz emandako erantzuna aurkeztu aurretik berrikustea ahalbidetzen dien formularioa.



ESTEKA INTERESGARRIAK

- NETWATCH -ERANET COFUND Horizonte 2020n
- Laburpen-aurkezpena: ERANET Cofund Horizonte 2020n
- ERA-LERN – *Know-how* eta koordinazio transnazionala ikastea
- Infoday ERANET COFUND. 2014ko urtarrilaren 16a
- NETWATCH – Egungo ERANETen deialdien egutegia (6. eta 7. EPak)
- Bioekonomiako ERANETen plataforma (6. eta 7. EPak)